

## **ZIRKULAR INFORMATIBOA: Tributazio bateratuko aldaketak eta familia gurasobakar kontzeptua 2025eko Errenta Aitorpenean**

Bezero agurgarria:

Araudi-aldaketen eta Arabako Foru Ogasunaren interpretazio-irizpide berriaren ondorioz, PFEZaren aitorpenean eragina izan dezakeen gai garrantzitsu baten berri eman nahi dizugu: **tributazio bateratua eta familia gurasobakar kontzeptua zerga-ondorioetarako.**

Tributazio bateratuako murrizketa (4.800 €) indarrean mantentzen da, baina “familia-unitatearen” kontzeptua nabarmen zorroztu da, bereziki familia gurasobakarrei dagokienez. Horrek esan nahi du aurreko ekitaldietan tributazio bateratua ahalbidetzen zuten egoerek, aurrerantzean, baliteke ez ahalbidetzea.

Hemendik aurrera, zerga-ondorioetarako familia gurasobakartzat jotzeko, seme-alabek zergadunaren mende egon behar dute modu eskusiboan.

Jarraian, egoera nagusiak laburbiltzen ditugu:

### **BAI APLIKA DAITEKE TRIBUTAZIO BATERATUAKO MURRIZKETA, FAMILIA GURASOBAKAR GISA:**

- Alargunak seme-alabekin.
- Ama edo aita ezkongabeak seme-alabekin, beste guraso legalik ez dagoenean.

Kasu horietan familia-unitate argia dago, eta tributazio bateratua aplikatzeko aukera mantentzen da, dagokion murrizketarekin.

### **EZIN DA APLIKATU TRIBUTAZIO BATERUAGATIKO MURRIZKETA, FAMILIA GURASOBAKAR GISA, HONAKO KASUETAN:**

- Dibortziatutako edo banandutako pertsonak zaintza partekatuarekin.
- Dibortziatutako edo banandutako pertsonak zaintza eskusiboarekin, beste gurasoak ekonomikoki laguntzen duenean (adibidez, mantenu-pentsioaren bidez).
- Seme-alabak dituzten pertsonak bikotean bizi direnean, ezkontzarik edo erregistratutako izatezko bikoterik gabe.

Egoera horietan, Ogasunak uste du bi helduek seme-alaben mantenuan laguntzen dutela, eta, beraz, ez dago familia-unitate gurasobakarrik zerga-ondorioetarako; ondorioz, banakako aitorpenak aurkeztu beharko dira.

Seme-alabek bi guraso badituzte eta biek mantenu ekonomikoan laguntzen badute, ez da familia gurasobakartzat joko zerga-ondorioetarako.

Ondorio horietarako, bizikidetza ezak, gurasoetako baten diru-sarrerarik ezak edo zinpeko adierazpenak aurkezteak ez dira nahikoa izango seme-alaben mantenua pertsona bakar batek egiten duela egiaztatzeko.

Asesoria Zenbat-en, errenta-kanpainan Arabako Foru Ogasunaren egungo interpretazioarekin bat datorren irizpiderik seguruenak aplikatuko dugu, etorkizuneko erregularizazioak, zehapenak edo arazoak saihesteko.

Zure egoera zehatzari buruzko zalantzarik baduzu, pozik aztertuko dugu zurekin batera.

Vitoria-Gasteiz, 2026ko urtarrilaren 12a